

28. INFORMAZIO FITXA PR BI 16. ARRIGORRIAGAKO ITZULIA (MENDIKOSOLO-SAN PEDRO)

KOKALEKUA

Udalerrria

Arrigorriaga

Udalerrriaren kod.

011

Eskualdea

Bilboaldea

Kartografia

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

Orriak

06147

FITXA TEKNIKOA

Homologatua

BAI

Gutxi gorabeherako denbora

45 minutu

Gehieneko desnibela (m)

145

Luzera (km)

1,6

Zailtasuna

Erraza

Trazatu mota

Lineala

Ibilbidearen hasiera

Mendikosolobarrena eta Mintegi parkea


Ibilbidearen amaiera

Abrisketako San Pedro basiliza

Interesa

Natura, etnografia, kultura

Ibilbidearen profila



Mapa/Krokisa



Nola Iritsi

Ibilbidea Arrigorriagako Mendikosolo parkean ("La Dinamita") hasten da; parkea Arrigorriagako hirigunea eta Abusu auzoa lotzen dituen errepedearen ondoan dago.

Deskribapena

Parkeko lurretan sartu, zurezko hesia zeharkatuz, eta lakurantz joango gara. Horren ertzetik doan bidezidorra hartuko dugu, lakua ezkerretara utzita, lakua atzean utzi eta kartel bat aurkitu arte; kartel horrek aditzera ematen du Abrisketako San Pedro basiliza erromanikorako zidorrean gaudela. Zidorretik jarraituko dugu, Goikiri errekaaren ertzetik, zurezko zubi bateraino, hori zeharkatu eta beste zidor bat hartuko dugu, eta horrek, landaredia trinkoa zeharkatuz, bertan behera utzitako baso-bide batera eramango gaitu. Hori ezkerretara hartu eta bertatik jarraituko dugu. Eskuinetara karobi zahar bat utzi ondoren, zidorrak zelai batzuk zeharkatu eta bidegurutze batera garamatza. Aurrerantz jarraituko dugu harrizko baso-bide batetik, eta horrela, hori amaitzean eskuinetara hartuz, Abrisketa auzoko baserri batera iritsiko gara. Bertatik igaro eta, ezkerretara hartu beharrean (harrobiko baso-bide zabala), aurrerantz jarraituko dugu landare artetik doan antzinako bidezidor batetik, eta horrek, beste baserri batetik igaro eta ezkerretara hartu ondoren, Abrisketako San Pedro basilizara eramango gaitu.

IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

Trazatua

Parkearen barruan lakua inguratzen duen bidea legarrezkoa da eta lurrezko bidezidor bihurtzen da lakua igaro ondoren. Gero, legarrezko bide batetik asfaltozko errepidera igaroko gara, eta bertatik, Abrisketako baserri artean San Pedro baselizara doan bidezidorra hartuko dugu.

Gurpil-aulkietarako gauza

Mendikosolo parkearen barruko zatia gurpil-aulkian egiteko modukoa da.

Norabideko seinaleztapena

Ibilbide laburreko (PR) bidezidor-zatia denez, nazioarteko araudiaren arabera seinaleztaturik dago, balizekin, gezidun zutoinekin eta pintura zuriko nahiz horiko markekin.

Informazioko seinaleztapena

Mendikosolo parkearen sarreran, zonako faunari eta florari buruzko informazioa ematen duen leku bat instalatu da, eta bertan, natura hobeto zaintzeko modua ere azaltzen da.

ARGAZKIAK

Mendikosolo parkearen barruko lakua inguratzen duen ibilbide-zatia.



Haurrak Mendikosolo parkeko lakuan arrantzan.



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Mendikosoloren eta Abrisketaren arteko bidezidorra.



Abrisketako San Pedro basilizako leiho monolitikoa.



BALIABIDEAK

Mendikosoloko aurriak

Parkea dagoen ibarbidearen atzealdean, XX. mendeko zati handi batean, Explosivos Río Tinto enpresako lehegailu lantegia egon zen. Bertatik trenbide lineatxo bat irten eta linea horretan lehegailuak garraiatzen ziren, mandoek tiraturiko bagoietan, udalerriko tren-geltokiraino. Gaur egun, jarduera horren aztarna batzuk daude, adibidez, tunel txikiak, eraikinen aurriak eta adreilu erregogorrezko tximinia bat.



Lakua

Goikiri erreka Mendikosolo parkea zeharkatu eta banatu egiten du. Erreka Pastorekortaren maldetan sortu eta Kubo auzoan amaitzen da. Lakua sortzen duen presak eten egiten du erreka bidea, eta azken horren uretan anfibioak, amuarrainak eta abar daude.



Karobia

Abrisketako baserrietara heldu baino apur bat lehenago, lehen karea egiteko erabiltzen zen karobia aurkituko dugu eskuinetara.



Abrisketako San Pedro basiliza

XII. mendeko basiliza erromanikoa da; hain zuzen ere, lurraldean estilo horretako basilizarik zaharrena da. Sarrerako atea mendebaldera orientaturik dago eta puntu-erdiko arkuak dauka; gainera, eskuineko janban bisigodoa izan daitekeen motiboa dago. Eraikin honetan aipagarriak dira hegoaldeko horma eta, hormadun puntu-erdiko arku baten gainean, bi erliebe erotiko; horietariko batean, besarkatzen ari diren bi pertsonaia biluzik ikusten dira, eta bestean, nekez interpretatzeko modukoa den (oso alferrik galduta baitago) pertsonaia biluzi bat. Halaber, aipatzekoa da absideko baoa, bertikalean jarritako pieza angeluzuzenean egindako saietera monolitikoa (goialdean inposta-segmentua duena).



EKIPAMENDUAK

Aparkalekua

Mendikosolo parkearen sarreran aparkalekurako zona bat dago eta Arrigorriagako Udalak handitu egingo du hori, ibilgailu kopuru handiagoa sartzeko; izan ere, parkera gero eta jende gehiago doa aspaldion.

Atsedenekua

Mendikosolo parkean ekipaturiko zonak daude, mahaiekin, erretegiekin, aulkiekin eta iturriekin.



Haurren jolasak

Mendikosolo parkearen barruan, lakuaren ondoan, haurren jolasetarako zona zabala eraiki dute, hareazko oinarri baten gainean.

ZERBITZUAK

Ostatuak

Udalerraren barruan, Etap Hotel Bilbao dago, Martiartu II. industrialdean, eta Hotel Beñaran ere bai, birmoldaturiko antzinako baserria, Martiartu auzoan.

Tabernak eta jatetxeak

Mendikosolo parkearen sarreran, zurezko eraikin handia dago eta, bertan, taberna-jatetxea dute. Gainera, Arrigorriagako hirigunean eskaintza gastronomiko handia dago.

Garraio publikoa

Arrigorriaga udalerrira ondo komunikaturik dago, autobusak eta Renfe aldiriko linea ditu. Mendikosolo parkera joateko, automobila erabili behar da, edo bestela, bidea oinez egin daiteke, eta horrela luzatu egingo dugu ibili beharreko distantzia.

OHARRAK

Ibilbide lineal honi buruzko datuak Mendikosolotik Abrisketako San Pedro baselizarakoak dira (joana bakarrik), eta beraz, aintzat hartu behar da abiapunturako etorria.